

**PATXI URRESTARAZU AIZPURUA, 'KABUKI' - JOSTUNA ETA DISEINATZAILEA**

## "Nire jantziek ez dute inoren gorputza diskriminatzen"

- Momentu onean dago diseinatzaile hernaniarra, bere burua ezagutu arazteko aukerak sortu baitzaizkio.
- Moda Gipuzkoa elkartearren web orrian sartu dute eta irailean Bilbon Modorra elkartarekin desfilea egingo du.

**PATXI Xabier Urrestarazu, Kabukik, erropa diseinatzen daramazki 7 bat urte. Guatemala eta Mexikon bertako komunitate indiginekin elkarbizitzen egon ondoren piztu zitzaien bokazioa. Orain Zikunagan dagoen Errapia artista tailerrean dauka bere txoko eta han aritzen da, patroi, neurri, orratz, plantxa eta josteko makina-rekin burura etortzen zaizkion diseinuak eta enkar-guzkoak egiten. Urte hau garrantzitsua izaten ari da Kabukirentzat, bere burua ezagutarazten ari baita herrian, Euskal Herrian eta munduan.**

■ Paco Rabanne lehendakari duen Moda Gipuzkoako web orrian sartu omen zaituzte, ezta?

Bai. Moda Gipuzkoako modaren munduko enpresaburu eta profesional talde batek osatzen duen elkartea bat da eta beraien web orrian sartu naute, sortzaile berrien tartearen. Web orria da: [www.modagipuzkoa.com](http://www.modagipuzkoa.com). Honek aukera ematen digu diseinatzaleoi hemen eta nazioartean ezagutarazteko. Gainera baliike datorren urtean Triintxerpen diseinatzaile eskola bat jartzea eta hor aukera izango dut ikastaroak egiteko, beste diseinatzaleekin harremanetan jartzeko eta nere lanak erakusteko.

■ Atzo preludioan dantzarien zeramazkiten bi soineko ere zuk diseinatuak dira. Ze idearen bueltan sortuak dira?

Dantza garaikideko emanaldiko soinekoak dira nik diseinatutakoak. Tertziopelozko bi



**Kabuki, Errapia artista tailerreko bere txokoan.**

**"Hernani ez da Chillida-Leku eta sagardotegietan amaitzen"**

soineko motz ziren. Tertziopeloa aukeratu nuen, oso erosoa delako eta gaueko soinekoak zirelako. Gainera gauez fokoekin argi eta itzalak egiten ditu tela horrek. Granaate kolorea aukeratu nuen gauerako elegantea delako.

■ **Zein da egin behar duzun hurrengo desfilea?**

Irailean izango da, Bilboko Alde Zaharreko fruta eta ber-

dura merkatuan. Letizia Orueta daramakien Modorra elkar-teak antolatzen du. Elkar honen asmoa da pasarela gainean biltzea euskal diseinatzale gazteak eta hauek ezagutaraztea.

■ **Enkarguz egindako lanak ere egiten ari zara?**

Desfile horretarako jantziak prestatzeaz gain, enkarguz eskatutako erropak ere egiten ari naiz. Fagollaga jate-txeko sukaldaria, Isaak Salaberria, behin Errapiara etorri zen eta hitz egiten egon ondoren eskatu zidan diseinu bat egiteko nazioarte mailako bi sukaldari kongre-

su dituelako laister.

■ **Zer balio du zuretzat enkarguzko jantzi batek?**

Enkarguz egiten ditudan jantziak pertsonaren gorputzera moldatzentzako eta ez dute gorputzak diskriminatzen. Bestetik, jantzia enkargatzen duen pertsonak parte hartzen du jantzigintzaren prozesuan.

■ **Zer ekarri dizu Errapia taldean egoteak?**

Lehendabizi neretzako leku bat izatea, eta gero beste artistekin batera aritzea. Honen inguruan esan nahi det Hernani ez dela Chillida-Leku eta sagardotegiak bakarrik, gauza ez da hor amaitzen. □

## ■ IGERIKETA

**Euskadiko txapelketak gaur bukatuko dira**

EUSKADIKO Igeriketa txapelketak jokatzen ari dira asteburuan Hernaniko kirolegian. Atzo goiz eta arratsalde izan ziren probak. Gaur goizean izango dira, 09:00etatik aurrera, kirolegian. □

## ■ TXIRRINDULARITZA

**San Juan Klasika gaur**

GAUR jokatuko da afizionatu mailako urteroko San Juan Klasika, Kaiku Sari Nagusia, Hernaniko JOCC taldeak antolatuta. 123,8 kilometroko proba da eta 160 txirrindulari ariko dira. Horien artean dago, Xabat Otxotorena hernaniarra eta bera da, gainera, proba irabazteko faboritoetako bat. Proba 10:00etan aterako da Urbietako kaletik eta 13:00ak aldean espero dute bukaera, Urbietan bertan. Ordurako beste bi aldiz ere pasako dira txirrindulariak helmugatik. □

## ■ Usakume-tiroa gaur

TXANTXANGORRI elkartea antolatuta usakume (pichon) tiroa dago gaur Jauregin, goiz eta arratsalde. Hernaniko Udaleko Sari Nagusia da gaurko eta Colombaire erako probintzia eta herri mailako txapelketan sartzen da. Gaur 11:00etan hasita Jauregin. □

## ■ Udako solstizioa ospatzeko ekitaldia gaur Chillida-Lekun

BURDINA eta sua ekitaldia izango da gaur iluntzean Chillida-Leku museoan, udako solstizioa ospatzeko. Ekitaldia Chillidaren eskultura artean egingo da eta bertan izango dira: Oreka TX taldea, Mai-alen Lujanbio eta Jon Maia, Mikel Etxekopar, Aukeran dantza taldea eta Olatz Beobide narratzailea. Ekitaldia 21:30etan da eta Hernaniko Udalak autobusak debalde jarri du 20:30etatik aurrera. □

**TXINTXUA**  
Jatetxea

Plater konbinatuak  
especializatuak

Eguneko menua  
Bokalak  
Plater konbinatuak  
Karta

Tikunaga Auxea, 20.120 Hernani. Tel.: 943 552 199 / 943 553 092

**VGALDETXO**  
Jatetxea

Bazkariak eta Afariak

Ereñozu auzoa  
Tel.: 943 550240  
20120 Hernani (Gipuzkoa)

**GARMENDIA**

MORTZ KLINIKA

ODONTOLOGIA OROKORRA  
MARCELO BORLE DOKTOREA (kol. ZKIA 320)

ORTODONTZIA  
UME ETA HELDUENTZAT  
KATHERIN PARR DOKTOREA

Eskatu PRESUPUESTOA KONPROMISORIK GABE

TXIRRITA KALEA 13-1<sup>a</sup> EZK. ~ TELF.: 943 55 34 92

Argitaratzailea: Dobera Euskara Elkartea. Erredakzioa, argazkiak eta publizitatea: Hernani Komunikazioak. J.M.Irazu U. Agirre, E. Agirre, N. Legarreta eta A. Zerain. Egoitza: Larramendi 11. ☎ 943-330899. Faxa: 943-336306. Eposta: [kronika@topagunea.com](mailto:kronika@topagunea.com) eta [publi@kronika.net](mailto:publi@kronika.net). Lege gordailua: SS-679/2000. ISSN 1576-8422.

## ■ ATLETISMOA - AZERI BILA KROSS HERRIKOIA



Gorka Gomez hernaniarrak jarri zion hasieran erritmoa karrerari.

## Iñaki Gebrero eta Itziar Urdangarin azkarrenak

■ Asier Larrañaga eta Eva Esnaola hernaniarrak bigarren izan ziren.

INAKI Gebrero eta Itziar Urdangarin irabazi dute aurtengo Azeri Bila Kross Herrikoia. Gebrero irudarrak 29:38 minututan egindako zituen 9 kilometroak eta Urdangarin hernaniarrak 33:38-tan. Mutiletan bigarren Asier Larrañaga hernaniarra izan zen eta nesketa



Itziar Urdangarin eta Asier Larrañaga.

## ■ PELOTA - PALETA GOMAKO FINALAK

### Lazcano anaiaik eta Mendizabal eta Ruiz txapeldun

ATZO jokatu ziren Hernaniko Paleta Goma txapelketako finalak. Nesketa Maider Mendizabal eta Maite Ruizek irabazi zuten txapela eta bigarren Amaia Martinez eta Susana Muneta izan ziren. Mutiletan, Oscar eta Ivan Lazcano anaiek irabazi zuten finala Lujanbio eta Imazen kontra. Hirugarren Esteban eta Arluziaga, eta laugarren Garcia eta Ortega. □



Bi txapelketako sarituak.

### 1978an Elorрабiko zubia erorita hil ziren aldeko meza

HOGEITA sei urte bete dira Elorрабiko zubi *kolgantea* erori eta 6 lagun hil zirela. Hil ziren omenez urtero egiten da meza Elorрабin bertan eta aurren ere hala egingo dute. Ekainaren 25ean, 11:00etan. □

### ANTZERKIA

### Institutuko ikasleen antzezlana etzi

INSTITUTUKO antzerki taldeak antzezlana egingo du asteartearen Biterin. *Eta zuk non jartzen duzu ipurdia?* da obraaren izena eta umore ikutuz tratatzera zenbait gai. Asteartearen 18:00etan Biterin. □

### XAKEA

### 9garren jardunaldia gaur bukatzen da

HERNANIKO Xake txapelketa herrikoia bederatzigarraren jardunaldian da, eta bihar da azken eguna erresultaduak emaneko. 8 lagun gelditzenten dira txapelketan eta lau onenek jokatuko dute azken ligaxka. □

### PUERTO PLATA

Tropical Casa Laguna \*\*\*

7 gau

ekainaren 21 eta uztailaren 04an:

399 € + tasak

uztailaren 5ean eta 19an:

549 € + tasak




### ESTAMBUL

Uztailaren 5ean

Santa Sofia hotela \*\*\*

254 € + tasak

[hernanib@teleline.es](mailto:hernanib@teleline.es)  
Urbia, 6 - 20120 HERNANI  
943 33 00 49 / 943 33 01 74



## Gaizka Aranguren kazetariak hitzaldia emango du asteartearen: 'Nafarroa osoa: Euskal Herria kontzeptu kulturala'

NABARRALDE taldeak antolatuta, Nafarroako historiari buruzko hitzaldia izango da asteartearen. Hitzaldia Gaizka Aranguren kazetari nafarrak emango du. Antolatzaileen hitzetan: "Nafarroako estatuarri

buruz orain arte ezkutuan izan dena ezagutzen ari gara, eta gezurrak ikasi behar izan eta gero orain ari dira argitzen zer ginen eta zer garen". Hitzaldia asteartearen da, 19:30etan, Biteri kultur etxearen. □

### ESKERTZA

Orain egun gutxi hil zen

**ANTXON IRADI IRASTORZA**  
(SASETA BATALOIKO GUDARIA)

- Goian Bego-



Emaztea, seme-alabak, bilobak eta gainerako ahaideek asko eskertzen dizuete samin-agurra bidali zenutenei eta baita bere hiletara etorri zinenten guztioi ere.

Hernanin, 2.004ko ekainaren 20an

### ZERBITZUAK

#### ■ TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udalzaingoa: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulutorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103
- Alkoholiko anonimo: 943 331103

#### + FARMAZIAK

- Egunez: Gomez Justel  
Kale Nagusia 14  
☎ 943 554892
- Gaez: Gomez Justel  
Kale Nagusia 14  
☎ 943 554892

### IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebral, reflexologia, aurikuloterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)

Adin ertaineko emakumea behar da etxeko lanak egiteko. Deitu: 943 55 24 61

Kanping karroa salgai. Karabana bihurtzen da. Aluminiozko panelak. Interesatuek deitu arratsaldean: 943 551832

Bizikleta salgai. Errepideko Zeus txirrinda. Egoera onean. Deitu: 943 556338

Bi emakume behar dira etxeko lanak egin eta pertsona helduak zaintzeko. Bat astelehenetik ostiraleria eta bestea asteburuan. Deitu: 655 741524

LOREZAINAK, garbiketako pertsonala, operarioak, zerbitzu ezberdinak, Eusko Jaurlaritza eta Udaletxetako sukalde laguntzaileak. Laster inkorporazioak Donostia, Bergara eta Hernanin. Dohaneko informazioa: 943 43 41 27

IGELTSEROAK, iturginak, arotzak, peoiak. Plaza fijoak Udaletxe eta Eusko Jaurlaritzan. Dohaneko informazioa: 943 43 41 27

ADMINISTRARI AUXILIARRAK. Udaletxe eta Eusko Jaurlitzako plaza libreak. Laster inkorporazioak, Zarautz, Hernani, Usurbil, Beasain, Berrobi, Irun, Errerteria, Bergara eta Oñati. Dohaneko informazioa: 943 43 41 27

EZINDUAK. Plaza fijoak erreserbatuak. Lortu lan postu bat Udaletxe eta Eusko Jaurlaritzan. Laster inkorporazio berriak. Dohaneko informazioa: 943 43 41 27

TELEFONISTA-REZEPZIONISTA. Plaza libreak Eusko Jaurlaritzeta eta Udaletxetan. Laster inkorporazio berriak. Dohaneko informazioa: 943 43 41 27

TXOFERRA. Plaza libreak Eusko Jaurlaritzeta eta Udaletxetan. Dohaneko informazioa: 943 43 41 27

ZAINTAZALEAK. Plaza fijoak haurrak eta 3garren adineko pertsonak zaintzeko, Udaletxe eta Eusko Jaurlaritzan. Dohaneko informazioa: 943 43 41 27

SUHILTZAILEAK. Inkorporazio berriak, parke lokal eta erregionalean. Gutxi gorabeherako soldata: 1.500 e. Dohaneko informazioa: 943 43 41 27

POLIZIA MUNIZIPALA. 43 postu libre Udaletxe ezberdinan: Hondarrabi, Hernani, Irun, Azpeitia, Azkoitia. Dohaneko informazioa: 943 43 41 27

BASOZAINA. 17 plaza konbokatuak. Egin ezazu lan Euskal Herriko parke naturaletan. Dohaneko informazioa: 943 43 41 27

**HERNANI HIZKUNTZAK** (Gure Ingelesetxea)  
ZORIONAK Xaber, Cambridge First azterketa gainditzeagatik eta Zorte on, Irati, Juan, Aitziber, Ion, Amaia, Ion Ander, Arantxa, Ander (*First*), eta Urko eta Julen (Advanced)

**UDAKO IKASTARO ERDI-TRINKOAK - Haur eta helduak Matrikula Zabalik**

Deitu Alan/Joe: 943 33 11 08 - KALE NAGUSIA 41, 1



dekorazio proiektuak  
gremio koordinaketa...

**Iñaki Alkorta**  
barne diseinua  
Kardaberaz 39 - [www.inakialkorta.com](http://www.inakialkorta.com) - 943 335431